

# Liburuak

## KRITIKA

*Nola elurretan beleak.* Luigi Anselmi.  
Pamiela. 94 orrialde. 14 euro.

Helduen literatura  
Igor Estankona



## Zutabe joniar berriak

DOZENA ERDI itzulpen eta dozena bat poema liburu, eta oraindik Luigi Anselmik (Bilbo, 1954) sinpletasunarekin harritzen gaitu, eta harrapatzen eite klasikoekin, hizkuntzaren esanahiarekin. Amets garbien lurraldeetan, Anselmiren poesia sakona eta era berean atsegina eta arina da: “Maitasuna eta herioa/ mugakide ditugu/ nola baratzte eder emankorrek/ eta ibai handiak.../ Ur sakonetara hurbildu ezean/ ezin hil egarria”.

*Nola elurretan beleak*, honenbestez, jarraipen bat da, “ur sakonetara” egindako bidaia, poetaren betiko bidean urratutako beste kilometro bat. Senti daitekeena eta zentzumenetik harago dagoena batzeko obsesioaren fruitu, natura eta izpiritua behin baino gehiagotan bihurtzen dira bat orrialdeotan, tituluko beleetatik hasita. Baina irakurleaz gogoratzen den aszeta da Anselmi, geuri hitz egiten diguna, eta ez jainkoei, edo lurrari. Leuna da bere luma, baina ez da harriztekoa zenbaitentzat urruna eta gogorra ere suertatzea tarteka: irakurle horiek ziurtasuna eskatzen dute, eta Anselmik zalantza soilik opa dezake.

Poesia mota hau apurka dastatzekoa da, eta ez dago metaforen etsaiantzat egina. Poesiaren kontzientzia gordetzen duten liburu bakan horietakoa da, arraza berezi bateko idazleek soilik idatz dezaketena poema liburu kultu horietakoa. Irudimen soziala eta irudimen poetikoa kitzika ditzake, poesia oso landua delako, lan oso garbi batek soilik lor dezakeen efektua lortzen duelako.

Sinpletasuna, ordea, idazle trebearen meritua da. Ilusio bat, azken finean: poema bukatua gozatzen dugu guk, baina bada go zer bait salatzen duena bere elaborazio konplexua, bere jaiotza nahasia, bere tradizio zahar berritua.

*Nola elurretan beleak* gogo-aldarte pausatuaren emaitza da, eta ezkorra da arean, nahiz eta Anselmiren poesia beti den eleganzia ilunaren adibide. Sano pertsonala da, baina ez partikularra. Etsipenean halako kontsolamendu bat elkarbanatzera gonbidatzen gaitu uneka: “Arrain gaitz baten gisan,/ zerumugak/ irla ñimiño hori irentsiko du laster/ eta oroitmina/ bularrean haziz joango zaigu,/ harik eta azkenik hartxoitsuak/ sagar eztiaren bihotza legez,/ barrena oso-osorik/ jango digun arte.”

Poeta koherentea iruditzen zait Luigi Anselmi. Maite, gehiago maite ditut beste batzuk. Baina bere liburu bat esku artera iristen zaidan bakoitzean txoko batera erretiratzen naiz oraindik, denboraren funsgabetasunaz eta hustasunaren edertasunaz ikas-tera. Benetako poesia ausart eta klasiko hori gozatzen zarata nagusi den garaioan.

## Islama Euskal Herrian: gaur-gaurko erronka

*Hemen* erlijio gogoetarako aldizkariaren 19. zenbakia Islamari eskainitako monografikoa da. Gai garrantzitsua inondik ere, aldizkari zuzendari Joxe Arregik aurkezpenean azpimarratu duenez 27.000tik



*Hemen.*  
Batzuen artean.  
Frontera.  
120 orrialde.  
28 euro (urteko harpidetza).

gora musulman bizi baitira Euskal Herrian. “Erronka historiko handi baten aurrean” gaudela dio Arregik, gure gizartean musulmanentzako leku egokia aurkitzen asmatu beharko dugulako. Horretan lagundu nahi dute zenbaki honetan euren gogoetak plazaratu dituzten Abdul Haq Salaberriak, Iñaki Ugaldek eta Halil Bárceñak, besteak beste. ■

## Biologiako kontzeptuen hiztegi ilustratua

Biologiako ezagutzek aurrera egin duten neurrian zientzia horretarako erabiltzen diren kontzeptuak korapilatsuago bihurtzen joan dira. Hori dela eta, geroz eta beharrezkoagoak bihurtzen ari dira kontzeptu horiek argi azalduko dituzten tresnak eskura izatea. Horretarako prestatu du Gaiak argitaletxeak *Biologiaren hiztegia*. Biziaren zientzietan interesa duen edonori zuzendutako lana da, baina Batxilergoko ikasleentzako izango da apika erabilgarrien.

Hiztegi entziklopedikoa da, eta honako berezitasunak ditu: 240 hitz sarrera bildu dituzte, baita kontzeptu bakoitzaren izena ingelesera itzuli ere, erabiltzaileari lan zientifikoa edo Interneten bilatzen laguntzeko. Azpimarratzekoa hiztegi barruan erreferentzia gurutzatuak emateko egin den ahalegina. ■



*Biologiaren hiztegia.*  
Iñaki Glez. Garai /  
Jon Umerez.  
Gaiak.  
271 orrialde / 22 euro.